

Ura eta Beortegi

BEORTEGI

- Iturriak, latsagiak
- Ibaiak, errekek
- Uharkak, putzuak
- Askak
- Erlazionatutako toponimia
- Ur-horniketa



Beortegiko latsagia

Iturriak

Beortegiko dermioan iturri asko daude: Euntzegain, Lavadero (latsagikoa), Sotico (Akotaingo zaldu txipikoa), Soto de la Huerta (baratzeko zaldukoa), Batueco (ganboiturria) eta beste batzuk.

Felix Lizarragak egin du iturri berria.

Latsagiak

Oraingoa egin aurretik, goraxeago dauden latsarrietan egiten zen lixiba, iturburutik hurbil. Ondoren egin zen egungoa, 1960-70eko urteetan eta, 2005ean, ibarreko auzolanean berritu zen.

IBAIK ETA ERREKAK

Ez dago emari iraunkorreko errekarik; ur guztiak iragazten edo lehortzen dira, negu-udaberriak heldu arte.

UHARKAK ETA PUTZUAK

Herrian, euri-uren putzuak zeuden, etxeko aziendarako, garbitzeko edota edariak freskatzeko baliatzen zirenak: Txantxoneko putzua eta Mateoneko putzua.

ASKAK

Bada herriko iturburuko aska, 1931. urtean eraberritua. Aska bada ere Akotaingo mugaldean, Sotico izenekoa (zaldu txipikoa) eta baita Soto izenekoa ere (zaldukoa).

ERLAZIONATUTAKO TOPONIMIA

Iturzarrea

Asketa

UR-HORNIKETA

Bazen iturburu zahar bat, Etxapeko askara isurtzen zuena. Eta ura baldeka igotzen zen, zamariekin edo gabe. Beranduago, 20.000 litroko biltegi bat egin zen, eta, ondoren, beste bat, berria, 50000 litrokoa. Ura ponpa bidez igotzen zen herrira, 14000 litroko beste biltegi batera. Euntzegaingo iturritik ere ura ekarri zen herriko iturburukoaren osagarri. 2014an, ura Mendinueta Soluziotik ekarri zen, Urrozko Argonga menditik, ponparik erabili beharrik gabe.



Iturri berria, Felix Lizarragak eginia 2024an



Soto (zalduko aska)



Sotico (Akotaingo zaldu txipiko aska)



Mateoneko putzua



Txantxoneko putzua